

OPE  
2007



2007ko  
LEP

KODEA Lanpostua/k:

**D-7018**

**ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIEN TEKNIKARIA**

*1. ariketa. 2. proba*

**TEST GALDERAK**

**Galderak: 55.**

**Denbora, gehienez: 60 min.**

EREDUA:

**C**

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
  - o Asmatuak: 1,00
  - o Hutsegiteak: - 0,33
  - o Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1. **Ahoz gorako etzanera, plano inklinatu baten gainean, pelbisa burua baino gorago geratzen delarik, eta izterrak pelbisa baino gorago, nola deitzen da?:**

---

- A Trendelemburgen jarrera
- B Roseren jarrera
- C Trendelemburgen jarrera alderantzizkatua
- D Simsen jarrera

2. **Botikei eta adin handiari gagozkielarik, adierazi zein den okerreko erantzuna:**

---

- A Adineko pazienteek gainerako jendeak baino botika gehiago hartu ohi dituzte, bai medikuek aginduta, bai medikuaren agindurik gabe eskura daitezkeenak
- B Botiken eragina aldatu egin daiteke deshidratazioagatik, sukarragatik, hezetasunagatik, malnutrizioagatik, tenperatugatik
- C Botika zein bidetatik ematen den, ez du eragiten hura xurgatzeko moduan
- D Adineko pazienteek albo-ondorioak izateko arrisku handiagoa dute, adinak sortutako aldakuntzek botikaren eraginari erasan baitiezaioke

3. **Fase terminaleko paziente batek hauxe esaten badu: "alabaren ezkontzarako bakarrik bizi nahi dut; gero prest egongo naiz..." Zein etapatan dago, Kübler-Rosen arabera?**

---

- A Ukapena
- B Negoziazioa
- C Depresioa
- D Onarpena

4. **Nola deitzen zaio ohera igotzeko eta bertatik jaisteko nahiz eserita egonik oinak bermatzeko erabiltzen den aulki txikiari?**

---

- A Oinazpikoa
- B Eskorga
- C Euskarri mailaduna
- D Eskailera

5. **Pertsona nagusiei bide topiko otikotik botikak emateari gagozkielarik, adierazi zein den zuzeneko erantzuna:**

---

- A Prestakin likidoa barneko entzunbidean ematen da. Burua beste aldera makurtzeko eskatzen zaio pazienteari, belarritik beheraka, atzeko aldera tira egiten, eta orduan tantak botatzen
- B Teknika esterila da
- C Botika emateko tenperatura 2°C eta 5°C artekoa izan behar da, dituen ahalmenak galdu ez ditzan
- D Prestakin likidoa kanpoko entzunbidean ematen da. Burua beste aldera makurtzeko eskatzen zaio pazienteari, belarritik goraka, atzeko aldera tira egiten, eta orduan tantak botatzen

6. **Noiz egin behar dira *post mortem* zaintzak?**

---

- A Senitartekoen pazienteak hil dela jakin ondoren
- B *Rigor mortis*-a agertu ondoren
- C Gorpua behar bezala isolatua egon ondoren
- D Medikuek heriotza egiaztatu ondoren

7. **Oxigenoa eman behar zaion paziente terminal baten zaintze planeko ekintzen artean honako hau aurkitzen da:**

---

- A Pazientearen kontzientzia egoeraren arabera ematea
- B Pazientearen ahoa bustitzea eta sudur-hobien egoera zaintzea
- C Odoleko ioi-kontzentrazio mailaren arabera ematea
- D Gelditze gurdia prest edukitzea

**Gernu-inkontinentzia mota batzuen kasuan ariketa jakin batzuk aholkatzen dira peroneo-muskulatura idarberritzeko. Nola deitzen dira?**

- A Newmanen maniobrak
- B Crepéren maniobra
- C Kegelen ariketak
- D McCormicken ariketak

**9. Tratamendu onkologiko aktiboa jasotzen ari den paziente indarge bati –anorexia handia du, eta ezin du ahotik behar bezala irentsi– elikadura enterala “bolus” bidez ematekotan, zerekin aplikatuko da?**

- A Zunda nasogastrikoa
- B Bide parenteralez, zuzenean joan dadin odol zirkulaziora
- C Kateter epidurala
- D Bide parenteralez, zuzenean joan dadin odol zirkulaziora

**10. Alzheimer gaixotasuna duen adineko pertsona bat asaldatu egiten da, eta erasokor jartzen, erizaintza-laguntzailea garbiketa egitera doakionean. Zein litzateke erizaintza-laguntzailearen jokabiderik egokiena?**

- A Irmotasunez esatea garbiketa egiteko ordua dela eta, jartzen den bezala jartzen dela egin egin behar duela, erakundeko arauak direlako
- B Lankideei laguntza eskatzea, euskarri fisikoa jartzeko berehalakoan, segurtasun neurri gisa
- C Larritu gabe, lasaitasunez hitz egiten saiatzea
- D Mediku geriatrari jakinaraztea, lasaigarriren bat agindu diezaion

**11. Nola egiten da konorterik gabe dagoen gaixo baten aho-garbiketa?**

- A Ahoko antiseptikoan bustitako torunda baten bidez
- B Eskuliatze bertikalaren metodoaren bidez
- C Pazientea Roseren jarreran dagoela
- D Ahoko antiseptikoz betetako xiringarekin baino ez

**12. Nola deitzen zaio artikulazio batean egitea posible den gehienezko desplazamenduari?**

- A Mugimendu arkua
- B Gehienezko mobilizazio aktiboa
- C Gehienezko mobilizazio pasiboa
- D Gehienezko hiperhedadura maila

**13. Presioagatiko ultzerak izateko arriskuak baloratzerakoan, alderdi hauek aintzat hartzen ditu Nortonen eskalak:**

- A Egoera fisiko orokorra, egoera mentala, inkontinentzia, jarduera eta mugikortasuna
- B Egoera fisiko orokorra, egoera mentala, alde zurretiko ebakuntza kirurgikoak, jarduera eta mugikortasuna
- C Egoera fisiko orokorra, alde zurretiko ospitaleratzeak, inkontinentzia, jarduera eta mugikortasuna
- D Egoera fisiko orokorra, egoera mentala, patologia konkomitanteak, inkontinentzia eta mugikortasuna

**14. Presioagatiko ultzerak agerraraz ditzakeen berezko faktorea da...**

- A Presioa, azalera gogor baten gainean (batez ere hezur konkorrak), jarrera maiz aldatzen ez denean
- B Azalaren eta bermatzen den azaleraren arteko igurtzidura
- C Denbora tarte luzez ohean edo gurpil aulkian egotea, mugikortasuna murrizten delarik, prozesu kroniko edo terminalen ondorioz
- D Hezetasuna

- 15. Hauek dira Kübler Rossek deskribatutako doluaren bost etapa edo faseak:**
- 
- A Ukapena, haserrea, negoziazioa, depresioa, onarpena  
B Baieztapena, haserrea, ukapena, depresioa, onarpena  
C Ukapena, haserrea, negoziazioa, tristura, onarpena  
D Baieztapena, dolua, negoziazioa, depresioa, onarpena
- 16. Gorozki gogortu eta trinkotuen pilaketa, pazienteak berez kanporatu ezin duena, nola deitzen da?**
- 
- A Inpaktazioa  
B Fekaloma  
C Idorreri kronikoa  
D Idorreri larria
- 17. Ohean dauden eta goiko gorputz-adar bat inobilizatua edo zain-bidea jarria duten gaixoen kasuan...**
- 
- A Janzteko, ongi edo aske duen besotik hasi behar da  
B Erantzeko, gaizki duen besotik hasi behar da  
C Erantzeko, ongi edo aske duen besotik hasi behar da  
D A eta B zuzenak dira
- 18. Paziente bat zunda nasogastrikoaren bidez elikatzean, elikagaia eman ondoren ura sartzen da eta zundaren tapoia jartzen. Gutxi gorabehera, zenbat ur sartu behar da?**
- 
- A 50 zentimetro kubiko  
B 20 zentimetro kubiko  
C 50 mililitro  
D A eta B erantzunak zuzenak dira
- 19. Funtzio intelektualen galera –besteak beste, oroimena eta arrazoibide abstraktua–, nola deitzen da?**
- 
- A Parkinsona  
B Hiperplasia  
C EPOC  
D Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena
- 20. Pazientearekin jokabide eta portaera bereziak edukitzea eskatzen dio Alzheimer gaixotasunak zaintzaileari. Adierazi hauetako zein ez den egokia:**
- 
- A Pazienteari lagundu egin behar zaio, baina inoiz ez berak oraindik ere egin ditzakeen zereginetan ordeztu  
B Eguneroko zereginak eta beharrezko direnak egin ditzan konbentzitzen saiatu, beti ere  
C Komunikazio handiagoa behar izaten da, hurbiltze fisikoa eta kontaktu bisuala direla medio  
D Ez hartu jarrera paternalista, mendetasun handiagoa sortzen baitie
- 21. Arnasketaren maiztasuna ohiko balioetatik behera jaistea, paziente terminal batengan, nola deitzen da?**
- 
- A Ortopnea  
B Takipnea  
C Bradipnea  
D Disnea
- 22. Zirkulazio-arazoaren ondorioz paziente terminal batengan ager litekeen azalaren kolorazio urdina eta, batzuetan, belzkara edo ubela, nola deitzen da?**
- 
- A Zianosia  
B Anoxia  
C Albuminosia  
D Ikterizia

- 23. Gernu-inkontinentziari gagozkiolarik, adierazi zein den okerreko erantzuna:**
- 
- A Pazienteak gernu-isuriak dituenean, errefortzu negatiboa baliatuko da, berriro gerta ez dadin  
B Ahal den neurrian, ez da pixoihalik erabiliko  
C Ahal den neurrian komuna erabiliko da, pixontzia baino gehiago  
D Pazienteari komunera laguntzen zaionean, nahikoa denbora eman behar zaio lasai egon dadin eta pixa egiterik izan dezan (intimitatea zaindu)
- 24. Nola deitzen zaio gauean pixa egin behar izateari?**
- 
- A Nikturia  
B Gaueko eneuresia  
C Disuria  
D Eneuresia
- 25. Nola deitzen diogu arnasketa normalari?**
- 
- A Disneikoa  
B Polipneikoa  
C Eupneikoa  
D Apneikoa
- 26. Zer diogu paziente batek pruritoa duela esaten dugunean?**
- 
- A Pazienteak STG bat duela  
B Pazienteak hazka egitean min handia hartzen duela  
C Pazienteak azkura handia duela  
D Pazienteak etiologia ezezaguneko izerditze oparoa duela
- 27. Gernu-inkontinentziari gagozkiolarik, adierazi zein den okerreko erantzuna:**
- 
- A Oso ahulduta dauden zaharrek erabiltzeko dira egokiak gernu kolektoreak, tratamendu ez-farmakologikoen eta farmakologikoen huts egin dutenean  
B Jarritako tratamenduari erantzuten ez dioten edo hobera egin arren inoizkako istripuen kontrako babes behar duten zaharren kasuan erabil daitezke kolektoreak  
C Gizonen kasuan erabiltzen dira kolektoreak, eta itsasgarri hipoalergiko batez itsasten dira zakilean  
D Maskuri-zunda jartzea da gernu-inkontinentzia tratatzeko lehenengo baliabidea, gernu-infekzioak saihesten baititu
- 28. Paziente terminal baten kasuan, zer adierazten du kafe-hondar okak?**
- 
- A Kafea hartu duela berriki, eta gero oka egin  
B Bilirrubina duela bere baitan  
C Odol digeritua duela bere baitan  
D Behazuna duela bere baitan
- 29. Nola deitzen zaio tumor zelulak jatorrizko lekutik gorputzeko beste organo batzuetara barreiatzeari?**
- 
- A Kartzinoma  
B Aplasia  
C Metastasia  
D Neoplasia
- 30. Paziente terminal bati bihotz-maiztasuna ohiko balioetatik gora igotzen bazaio, zer duela esango dugu?**
- 
- A Takipnea  
B Bradikardia  
C Perikardia  
D Takikardia

**31. Zertarako balio du antipiretiko batek?**

---

- A Oinazea arintzeko
- B Idorria duten pazienteei hesteak libratzen laguntzeko
- C Hipertermia duten pazienteen gorputz tenperatura jaisteko
- D Edema barreiatuak dituzten pazienteei diuresia errazteko

**32. Ohean kanpoko genitalak garbitzeari gagozkiolarik, adierazi zein den okerreko erantzuna:**

---

- A Garbiketa uzki aldetik zona genital aldera egingo da, sekula ez aldarantziz
- B Pazienteen zangoak bananduta eta tolestuta egongo dira
- C Bainuaren ondoren aldatu egingo da pijama edo kamisoia, eta azkenik ohea
- D Pazientearen egoerak uzten badu, berak egiteko aukera emango zaio

**33. Paziente baten mugitzeko premia baloratzeko, hauxe izango dugu kontuan:**

---

- A Haren nortasuna eta emozioak
- B Inguruaren beharretara egokitzen den
- C Haren artikulazioen mugimendu arkuak
- D Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

**34. Zein da presioagatiko ultzerak saihesteko tratamendurik hobereena?**

---

- A Prebentzioa
- B Apositu hidrokoloideak erabiltzea
- C Zarakarren kontrako lastaira
- D Dieta orekatua

**35. Lotan dagoen gaixo bati ahotik eman beharreko medikazioa emateko agintzen badizute, zer egin behar duzu?**

---

- A Lotan jarraitzen utzi
- B Esnatu
- C Zein botika den...; batzuetan atzeratu daiteke
- D Dosia bertan behar utzi

**36. Nola tratatu behar du erizaintza-laguntzaileak pazientea, hura zentroan sartzen denean?**

---

- A Izenaz deituz eta zuka hitz eginez
- B Berarekin gaixotasunaz hitz egin gabe
- C Hasieratik gaixotasunaz hitz eginez, ohitu dadin
- D A eta B erantzunak zuzenak dira

**37. Gernu-inkontinentziari gagozkiolarik, adierazi zein den erantzun zuzena:**

---

- A Gernu-inkontinentzia gaixotasun bat da
- B Inkontinentzia mota bakar bat dago, premia-inkontinentzia deitua
- C Ez da jotzen gernu-kanporatzearen nahasmendutzat
- D Gernu-inkontinentzia sintoma bat da, ez gaixotasun bat

**38. Erizaintza-laguntzaileak adin handikoen independentzia eta autokontzeptu positiboagoa sustatzeko egin ditzakeen gauzei gagozkiolarik, adieraz ezazu zein den okerreko erantzuna:**

---

- A Beren zaintzen plangintzan parte hartzera animatu, eta erabakiak hartzerakoan inplikarazi
- B Nahikoa denbora utzi beren interakzio edo ekintza burutzeko
- C Beren inguruan argazkiak edo bestelako gauza esanguratsuak eduki ditzatela eskatu, halakoek lurraldea edo espazio fisiko propioa mugatzen baitute
- D Gai diren pazienteek gauzak egiten edo gizarte eta jolas ekintzen plangintzan parte hartzen ez utzi

39. **Tratu txarrak adinekoengan, traumatismoengatiko lesioak, desnutrizioa, deshidratazioa, erorketengatiko hausturak, axolagabekeria edo zaintzarik ezagatiko etzanerako ultzerak, lotura-zauriak, urradurak, erredurak eta intoxikazioak, zer direla esaten da:**

- A Lesio fisikoak
- B Ondorio psikologikoak
- C Ondorio sozialak
- D Aurreko erantzun guztiak okerrak dira

40. **Paziente terminalen kasuan plazeboak erabiltzeari gagozkiolarik, adierazi zein den erantzun okerra:**

- A Ez dago inongo arrazoirik minbizia aurreratua duten gaixoen kasuan analgesioen ordeztasun horiek erabiltzea justifikatzen duenik
- B Minbizia aurreratua duten gaixoen kasuan analgesikoen ordeztasun plazeboak erabiltzea onartezina da, klinikoki nahiz etikoki
- C Gauza jakina da plazebo efektuak funtziona dezakeela denbora tarte labur batez, baina ez dago inongo arrazoirik minbizia aurreratua duten gaixoen kasuan analgesioen ordeztasun horiek erabiltzea justifikatzen duenik
- D Minbizia aurreratua duten gaixoen kasuan plazeboak erabiliko ditugu analgesikoen ordeztasun, baldin eta beharrezkotzat jotzen badugu; hartara medikazio analgesikoaren albo-ondorioak saihestuko ditugu

41. **Paziente terminalaren elikadurari gagozkiolarik, adierazi zein den okerreko erantzuna:**

- A Osasunaren eta jardueraren ikur da elikadura; gaixotasun terminala izanik, ohikoa da gaixoek nahiz senitartekoez horrekin zerikusia duten arazoak aipatzea
- B Arau orokor gisa, kontuan izanik anorexia, ahulezia eta betedura gastriko goiztiarraren sententzioa, gomendagarria da dieta 6-7 hartualditan banatzea eta ordutegiak arazatuz, gaixoaren nahiaren arabera
- C Hartualdi bakoitzeko jaki kopurua gaixoari egokitu behar zaio, gehiago hartzea estutu gabe, porrot sententzioa eragiten baitu horrek
- D Dieta hiperkalorikoak eta hiperproteikoak bultzatu behar dira, pazientearen suspentzioa errazteko

42. **Tratu txarra, erakunde baten barruan, modu hauetan gerta daiteke (okerreko erantzuna adierazi):**

- A Medikamentuak behar bezala ez eman eta ingurumen baldintza egokiak ez eskaini
- B Gauza ezegoki edo mingarriak esatea eta intimitatea galaraztea (higienea, sexua, bakardadea...)
- C Medikamentuak behar bezala ez ematea
- D Ingurumen baldintza egokiak eskaintzea

43. **Gaixotasun terminalak ezaugarri jakin batzuk biltzen ditu bere baitan, hura definitzeko baliagarri baitira. Adierazi egoki ez dena:**

- A Gaixotasun aurreratu progresibo sendaezina ageri da, pazienteari, senitartekoei eta terapia-taldeari eragin emozional handia sortzen diena eta heriotzaren pesentzia esplizitu edo ez esplizituarekin lotura handia duena
- B Berariazko tratamenduari erantzuteko arazoizko posibilitaterik eza
- C Arazo edo sintoma biziak, ugariak, faktoreanitzak eta aldakorak ageri dira
- D 6 hilabetetik gorako bizitza-iragarpena

- 44. Erorketak saihesteko aholkuei gagozkielarik, zein da okerreko erantzuna?**
- 
- A Eduki itzazu argindar eta telefono hariak paretetatik gertu eta ibiltzen zaren lekuetatik urrun  
B Jar itzazu alfonbrak ohetik ahalik eta gertuen, ohean sartzerakoan ez irristatzeko  
C Konpondu itzazu altzariak (bereziki erdiko mahaiak) eta bestelako gauzak, igaro behar duzun lekuan egon ez daitezen  
D Ziurta ezazu sofa eta aulkien altuera egokia dela, erraz eseri eta altxatzerik izan dezazun
- 45. Erabakiak hartzea galarazten duten manipulazioa, larderia, mehatxuak, laidoak, xantaia, destaina, eskubideak urratzea... nolako tratu txartzat jotzen dira?**
- 
- A Fisikoa  
B Biologikoa  
C Psikologikoa  
D A eta B erantzunak zuzenak dira
- 46. Zertan oinarritzen dira adineko pertsonari bere independentziari eusten laguntzeko planteatzen diren helburuak?**
- 
- A Bakoitzaren ezaugarriak identifikatu, adinekoaren erabateko balorazioa eginez  
B Baterako programak prestatu, mugetara egokitzeko aukera eman dezaten  
C Adinekoaren parte hartzea erraztu, beraren beharrak asetzearen inguruko erabakiak hartzeko orduan  
D Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 47. Ondokoetatik, zein ez dator bat autoestimua baxuko paziente baten portaerarekin?**
- 
- A Pazienteak ez ditu bere rola itxaropenak betetzen  
B Pazienteak ezin ditu arazoak behar bezala konpondu, eta ez du laguntzarik eskatzen  
C Pazienteak autonomia eta independentziaz jokatu, eguneroko zeregin guztietan  
D Pazientea ez da berari buruz egiten dizkioten iruzkin positiboak onartzeko
- 48. Paziente terminal bati hartz-protesia jartzea gomendatzen da...**
- 
- A Hobeto mastekatu dezan bakarrik  
B Gingibitisa saihesteko  
C Sialorrea saihesteko  
D Gorputz irudia eta autoestimua zaintzeko
- 49. Zein da erregimen terapeutiko farmakologikoa ez betetzearen arrazoi nagusia, adineko pertsonengan?**
- 
- A Automedikazioa  
B Polimedikazioa  
C Irensteko arazoak  
D Ahaztea
- 50. Paziente geriatrikoen erorketen prebentzioari gagozkielarik, adierazi zein den okerreko erantzuna:**
- 
- A Pazientearen logelako altzariak lekuz aldatzeak inguruarekiko interesa pizten duela eta erorketak saihesten dituela frogatu da  
B Zokaloan argiak jartzea erorketak saihesteko neurri bat da  
C Oinetako itxiak, irristaketan kontrako zola dutenak erabiltzea erorketak saihesteko neurri bat da  
D Behar diren laguntza teknikoak ongi erabiltzeak erorketak murrizten ditu



**51. Zein ez da higiearen/garbiketaren helburuetako bat?**

---

- A Pazientearen autoestimoa mantentzen edo hobetzen laguntzea
- B Gorputz tenperatura jaitea, hipotermia kasuetan
- C Hazkura sortzen duten produktu toxiko edo narritagarriak kentzea
- D Laguntze harremana erraztea, prozedurek eskatzen duten hurbiltasuna dela eta

**52. Erizaintza-laguntzaileak paziente terminalaren familiari laguntza emateari gagozkiolarik, zein da okerrekoa?**

---

- A Iritziak ematea
- B Familiakoen edozein erreakzio errespetatu
- C Familiari gaixoa zaintzari buruzko jarraibideak eman
- D Pazientea zaintze lanetan inplikatu, bere ahulezia-egoeragatik

**53. Zein jarreratan dago presioagatiko ultzerak agertzeko arrisku handiagoa, tuberositate iskiatikoetan?**

---

- A Eserita
- B Alboko etzanera
- C Belaunpektoral
- D Ahoz gorako etzanera

**54. Jarrera-aldakuntzei gagozkiolarik, zein da okerrekoa?**

---

- A Jarrera-aldakuntzen helburua presioguneak deusezteia edo murriztea da
- B IV. estadioan jarrera-aldakuntzak orduan behin egiten dira goizeko eta arratsaldeko txandetan, eta bi orduan behin gaueko txandan
- C Ahal den guztietan mugitzera animatuko da pazienteak
- D Luzaro eserita egoten denean, jarrera-aldakuntza txikiak egin behar dira 15-30 minutuan behin

**55. Pertsona batek behar bezala atsedean hartzen eta lo egiten duen baloratzeko, honi begiratuko diogu:**

---

- A Egiten duen ariketa eta jarduerari
- B Ohea, lastaira, burukoa eta arropa haren gustu eta beharretara egokitzen diren
- C Aurpegikerari
- D Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira